

laborategian
jarduteko jarraibide
orokorrak

14

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOA

Laborategia: bertan esperimentu zientifikoak eta eragiketa kimikoak egiteko prestatutako lokala.

ARRISKU ELKARTU NAGUSIAK

● ARRISKU KIMIKOA ETA BIOLOGIKOA

Arrazoa:

- Era askotako substantzia kimiko eta lagin biologikoak egotea.
- Gaien ezaugarri arriskutsuak ez ezagutzea.
- Segurtasun-datuen fitxak ez edukitzea.
- Lan egiteko metodoak eta prozedurak ez ezagutzea.
- Produktu kimikoen edo material biologikoen ontziak zabalik edo gaizki itxita edukitzeagatik, aireztapen eskasagatik, xurgatzeko edo erauzteko ekipamenduak ez erabiltzeagatik edo oker erabiltzeagatik ingurumenean sortutako kutsadura.
- Laborategiko material desegokia edo kalitate txarrekoa erabiltzea.

● SUTEA EDO EZTANDA IZATEKO ARRISKUA

Arrazoa:

- Instalazio akastunak
- Biltegiratze desegokiak

● POSTURA DESEGOKIAK EDO BEHARTUAK

Arrazoa:

- Leku falta.

● LANEKO OHITURA TXARRAK



PREBENTZIOZKO NEURRIAK

- Eskura izan **segurtasun-datuen fitxak**. Jarraibidearen arabera jokatu.
- Erabili ondoren, **itxi** produktu kimikoa edo material biologikoa daukaten **ontzi guztiak**.
- Mantendu **gutxieneko stock** operatiboa.
- Behar bezala erabili eskura dituzun **erauzteko eta xurgatzeko ekipaok**.
 - **Ez erabili kabinak** laborategiko materialak eta ekipaok **biltegitratzeko**.
 - Aurreko irekiduratik gutxienez 10 cm-ra lan egin kabinako mahaiaren gainean.
 - **Ipini martxan kabina lanean hasi baino 15-30 min lehenago**.
 - Eragiketak irauten duen bitartean, **ahalik eta itxien eduki aurreko pantaila**.
 - **Amaitutakoan, utzi bitrina martxan 15 minutuz**, deskontaminatzeko neurri gisa.
- Prest eduki lana modu seguruan egiteko **beharrezko informazio** guztia.
- **Erabili** zeregin bakoitzari dagozkion **norbera babesteko ekipamenduak** (NBEak).
- **Ez egin esperientzia berririk** laborategiko arduradunaren baimen espresik gabe, eta ez ipini martxan gailu eta instalazio berririk, aurrez ez baldin badakizu nola funtzionatzen duten edo zein ezaugarri eta eskakizun dituzten, orokorrak nahiz segurtasunekoak.
- **Ez lan egin bakarrik laborategian**, laborategiko arduradunaren baimen espresik gabe, batez ere ohiko orduetatik kanpo, gauean, edo arriskua duten eragiketetan.
- Jakinaren gainean jarri gainerako langileak arriskuko eragiketak egiten dituzunean.
- Ekipamendu nahiz material akastunik aurkitzen baduzu, edo gaizki funtzionatzen dutela susmatzen baduzu, emaziozu horren berri erdi mailako zure arduradunari.
- **Ez erabili iraunkorki** luzagarririk eta multikonektorerik ("lapurrik").
- **Ez metatu materialik** lan-gainazaletan. Erabili lekua modu neurritsuan.
- **Dena txukun eta garbi mantendu**.

● Lan-praktika onak erabili.

- Garbitu eskuak laborategira sartzean eta bertatik irtetean, eta produktu kimiko edo material biologikoren batekin kontaktua izandako guztietan.
- Beti lotuta eraman batak eta laneko arropak eta ilea bilduta; saihestu zintzilikarioak eta mahuka luzeak, muntaketekin eta laborategiko materialekin katea baldin badaitezke.
- Ez lan egin mahaitik aldenduta.
- Ez erre eta ez jan laborategian. Ez murtzikatu txiklerik. Ez erabili kosmetikorik.
- Ez erabili ukipen-lenterik, begietan etengabeko narritadura sentituz gero, eta, batez ere, ez badira segurtasuneko betaurrekoak erabiltzen halabeharrez. Hobe segurtasuneko betaurrekoak erabiltzea, graduatuak edo azpian betaurreko graduatuak janzteko aukera ematen dutenak.

